



UNITATE SUSTATZAILEA	EUSKARA ETA HEZKUNTZA
XEDEA	ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALETAKO HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZAK: OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA ONARTZEA (2025).

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatu Garbiñe Marzol Ormazabalena, bat etorrita Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela. Geroztik, bi aldaketa izan ditu: bat, GAO, 68. zk., 2023-01-26an, eta bestea, GAO, 89. zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan sartua dagoela honako dirulaguntza-lerro hau: establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzak. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 4.000 euroko zenbatekoa finkatu dela, 2025eko udal-aurrekontuaren 0900.481.02.335.10 partidan.

LAUGARRENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko otsailaren 2an emandako probidentzian, agindu zuela espedientea hasteko establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko.

BOSGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak proposamen teknikoa egin duela, oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera emateko.

SEIGARRENA.- Dagokien sailek eta azpisailek (Berdintasunak, Euskarak, Kontu-hartzailetzak eta Idazkaritzak) beren txostenak igorri dituztela, honako ondorio hauekin:

Egilea	Aldekoa / Kontrakoa / Baldintzatua	Oharra
--------	------------------------------------	--------



Berdintasuna	ALDEKOA	
Euskara	ALDEKOA	
Juridikoa	BALDINTZATUA	Oinarrietan eta deialdian aldaketak egitea.
Kontu-hartzailatza	BALDINTZATUTAKO ALDEKOA	Txosten juridikoa egitea faltako litzateke eta bertan oharrik balego, horiek kontuan izan beharko lirateke behin betiko proposamenean.

ZAZPIGARRENA.- Txosten horietan adierazitako alderdi guztiak kontuan izan dituela Euskara eta Hezkuntza Sailak, eta dagozkion zuzenketak egin dituela.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotako udalerriko eskumen propioen artean hau dagoela: «26) *Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera*».

BIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak (aurrerantzean, DLO), hau ezartzen duela 9.2 artikuluan: «*Dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera*».

Horren haritik, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez da zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena.

Beraz, oinarrien egintza-izaera ez da xedapen orokor bat, administrazio-egintza bat baizik.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55.1 artikuluan, dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, honako hau adierazten da: «*Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da, Legearen 22.1*



artikuluaren aurreikusitakoaren arabera. Aurrekoa gorabehera, dirulaguntza arautzen duten oinarriek lehentasun-ordena bat ezarri beharretik salbuetsi ahal izango dituzte deialdian esleitutako kreditua behar bestekoa, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren dagoen eskabide kopuruaren arabera».

Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik.

LAUGARRENA.- Era berean, DLOaren 17.3 artikuluan adierazten dela zeintzuk diren dirulaguntzen oinarriek gutxienez jaso beharreko alderdiak. Atal horietaz gain, DOOaren 19. artikuluan zehazten dira aurreko artikuluan aipatutakoei erantsi beharreko alderdiak. Horiek guztiak, lege-txostenean xedatu bezala, espedientean jasotzen dira.

BOSGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, dirulaguntza-lerro hau honako arrazoi hauengatik jotzen dela interesekotzat:

Dirulaguntzaren xedea:	Xedea da Tolosako establezimenduei dirulaguntzak ematea, hizkuntza-paisaia euskalduntzeko helburuarekin.
Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak:	Espero da establezimendu gehiagok egitea urratsa beren hizkuntza-paisaia euskaraz jartzeko. Orain arte, errotulu nagusia euskaraz jartzeko eman izan dira dirulaguntzak, eta orain handitu egingo da dirulaguntzen hedadura: errotulu nagusia ez ezik, diruz lagunduko dira webguneak eta irudi korporatiboko elementuak ere, besteak beste.
Dirulaguntzaren beharraren justifikazioa:	Udalaren eskumena da euskararen erabilera sustatzea udalerrian, eta hizkuntza-paisaiak zeresan berezia du horretan, erabilera areagotzeko elementua baita. Kontuan hartuta Tolosan merkataritzak duen indarra, garrantzi handikoa da establezimenduetako hizkuntza-paisaia euskarazkoa izatea, horrek berak euskara erabiltzeko gonbita egiten baitie hitzunei.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikulua dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa dela. Zehazki, honako hau jasotzen du: «Oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, oinarri hauen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik



badatoz, beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe».

ZAZPIGARRENA.- Oro har, oinarri arautzailean eta deialdian xedatzen denari kalterik egin gabe, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrekin bat etorrira ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango direla helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gaintitu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da, eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela.

Finantzaketan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

ZORTZIGARRENA.- Oinarri arautzaileek DLOren 17.3 artikuluan ezarritako edukia izan behar dutela ezinbestez, eta deialdiak, berriz, DLOren 23.2 artikuluan eta DOOren 19. artikuluan ezarritakoa. Gainera, DLOren 18. eta 20. artikuluetan aurreikusitako publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzeko, argitaratu beharko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (DDBN - BDNS), zeinak dirulaguntza eta laguntza publiko guztien deialdiak argitaratuko dituen.

BEDERATZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko muga barruan gastuak xedatzea.

Halaber, 2023/1718 Alkatetza Dekretuaren bidez, eskumen hori arloko zinegotzi delegatuari eskuordetua zaio.



Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- Establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea, testu honen arabera:

1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa

Oinarri hauen xedea da arautzea Tolosako establezimendu komertzialentzako dirulaguntzak, lehiarik gabeko konkurrentzian ematen direnak, hizkuntza-paisaia euskalduntzea sustatzekoak.

2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea

Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023ko otsailaren 1ekoa).

3. Pertsona edo entitate onuradunak

Pertsona edo entitate onuradun (aurrerantzean, onuraduna) izan ahalko dira Tolosan jarduten duten norbere konturako langileak edo autonomoak, saltokiak eta enpresak, oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Pertsona edo entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak

Hona hemen pertsona edo entitate onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
1. Beteazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.
2. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.
3. Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldi berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.
4. Ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzaketen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea:



berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.

5. Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

1. Diruz laguntzen denak lotura izan behar du onuradunaren xede edo helburu sozialekin.
2. Tolosako Udalaren jarduera-baimena edukitzea.
3. Establezimenduko hizkuntza-paisaia gutxienez euskaraz edukitzea, bai finkoa, bai aldatkorra.
4. Diruz lagungarri diren kontzeptuekin lotuta 800 euro baino gehiago jaso ez izana azken bost urteetako dirulaguntzetan.
5. Dirulaguntza jaso behar duen jarduera 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitartean egindakoa izatea.
6. Jarduera ekonomikoa Tolosan dauden lokaletan egitea eta egoitza soziala Tolosan izatea.
7. Errotulazioaren kasuan, baldintza hauek:
 - Establezimenduaren fatxada nagusian, toldoan edo ibilgailuan egotea.
 - Euskara hutsez idatzita egotea jardueraren izena. Ez dira onartuko izen berezia bakarrik daukaten errotuluak.
 - Euskaraz egoki idatzirik egotea.
8. Webguneen kasuan, hauek:
 - Gunearen eduki guztiak gutxienez euskaraz egotea.
 - Euskaraz egoki idatzirik egotea.
 - Webgunea erabat osatuta egotea.
 - Webgunean legez babestutako edukiren bat badago, eduki horien gaineko lizentzia izatea eskatzaileak.
9. Irudi korporatiboaren kasuan (logotipoa, bisita-txartelak, komertzioko poltsak...):



- Euskara hutsez idatzita egotea jardueraren izena. Ez dira onartuko izen berezia bakarrik daukaten elementuak.

- Euskaraz egoki idatzita egotea.

10. Euskara txertatzen laguntzeko aplikazio informatikoen kasuan (TicketBai...):

- Kontzeptu guztiak euskaraz egotea.
- Euskaraz egoki idatzita egotea.

Dirulaguntza honetatik kanpo daude honako hauek:

- Webgune pertsonalak.
- Hezkuntza-zentroen webguneak.
- Eduki iraingarriak edo eskubideen aurkakoak dituztenak.
- Alderdi politikoen webguneak.
- Sarbide mugatuko webguneak edo ordainpeko zerbitzuak dituztenak.
- Tolosako Udalak lehendik diruz lagundutako webguneak.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura

1. Lehiarik gabeko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.
2. Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.
3. Prozedura horren bidez, aurkeztutako eskaerak hurrenkera kronologikoan ebaluatzen dira, betiere pertsona edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.

6. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.
2. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:
 - Errotulazioa, honako elementu hauek sartuta: kanpoko errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa.
 - Webguneak: euskaraz erabili ahal izateko web orri edo atarietan egiten diren lanak.



- Irudi korporatiboa, honako elementu hauek sartuta: gutun-zalak, menbretedun orriak, bisita-txartelak eta entitatearen identifikazio-zigilua. Diseinu-lanaz gainera, elementua bera ere diruz lagundu ahalko da.
- Jarduera euskalduntzen lagundu dezaketen aplikazio informatikoak (TicketBai...).
- 3. Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa, aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako zerbitzu-prestazioetan 15.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzailei, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea.
- 4. Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori.

Ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 28.6. artikuluan aipatutako gastuak.

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek eragindako -gastuak.
- Zeharkako zergak, errekupegarriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.

7. Onuradunak diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeara

1. Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du dirulaguntzaren xede den jarduera.
2. Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa % 100 izango da.
3. Ezin da azpikontratatu diruz laguntzen den jardueraren kostua handitzen duen jarduerarik, baldin eta ez badio haren edukiari baliorik erantsten.
4. Azpikontratutako jarduera dirulaguntzaren % 20tik gorakoa eta 60.000,00 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz egin beharko da, betiere Tolosako Udalak aldeztu aurretik eta berariaz horretarako baimena ematen badu.



8. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua

Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.

Pertsona fisikoek eskaerak eta gainerako dokumentazioa Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte (<https://udala.tolosa.eus/es>), tramiteen ataritik dagokion dirulaguntza-lerrora sartuta. Bestela, aurrez aurre aurkez ditzakete, herritarrei arreta eskaintzeko bulegora etorruta (UDATE, Plaza Zaharra 6B), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez..

9. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.

1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta eskura daiteke: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU071120878>. Entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.
 - a) Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituen.
 - b) Erantzukizunpeko adierazpena, non adierazten den diruz lagungarri diren kontzeptuekin lotuta ez dela jaso 800 euro baino gehiago azken bost urteetako dirulaguntzetan.
2. Ordezkaritza-agiria, hala badagokio.
 3. Dirulaguntzaren xede den jarduera egin izana erakusten duen dokumentazioa, kasuan kasukoa:
 - Errotuluen eta irudi korporatiboko elementuen kasuan, dagokien elementuen argazkiak.



- Webgunearen kasuan, esteka.
- Aplikazio informatikoen kasuan, euskarazko erabilera erakusten duen lagina.

4. Egindako gastuaren fakturak eta ordainagiriak.

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria.
6. Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria.
7. Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
8. Jarduera-baimena.
9. IGAEri BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.

10. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.

Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 23.3 artikulua araberak, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu.

Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazio eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen.

Pertsona edo entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.



Ilido horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.
- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
- Jarduera-baimena

Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona edo entitate eskatzaileari aurkez ditzala.

Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.

11. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria

Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

12. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak

Establezimenduentzako dirulaguntzek kostuaren ehuneko bat estaliko dute, gehieneko kopuru batekin, kontzeptuaren arabera:

- Errotuluak: % 50, gehienez 450 euro.
- Irudi korporatiboa: % 50, gehienez 200 euro.
- Webgune osoa: % 50, gehienez 450 euro
- Webgunearen hasierako orria: % 30, gehienez 300 euro.
- Aplikazio informatikoak: % 50, gehienez 200 euro.

13. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.



Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da. Ezingo da irudi diskriminatzaile edo genero-estereotipotik erabili, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak dituen irudia sustatu beharko da.

Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari.

14. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa

1. Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena.
2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.
3. Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da.
4. Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzen bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsi beharko dizkio.
5. Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

15. Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntzaren % 100 ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartu ondoren.

16. Dirulaguntzaren justifikazioa

Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera; baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

Horretarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharko du 9. artikuluan adierazitako dokumentazio espezifiko.

17. Itzulketen araubidea



Aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira oinarri hauetan ezarritako kasuetatik eta baldintzetatik kanpo, ezarritako betebeharrak edozein betetzen ez bada, edo Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 36. artikuluan ezarritako beste edozein kasu gertatzen bada, emandako zenbatekoa deuseztatu egingo da edo itzuli egin beharko da.

Horri dagokionez, Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. kapituluan ezarritakoa aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.

18. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. kapituluan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.

19. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

- Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoa
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra. Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

BIGARRENA.- Establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, honako eduki honekin:

1. Xedea



Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: Tolosako establezimendu komertzialei hizkuntza-paisaia euskalduntzea sustatzeko lehiarik gabeko konkurrentziaren arabera ematen zaizkien dirulaguntzak.

2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida

Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa 4.000,00 eurokoa da, Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: 0900.481.02.335.10 (2025).

Beharrezkoa balitz, eta betiere 2025. urteko Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza-deialdian finantzaketa sobran geratuz gero, 5.000 eurora bitarteko zenbateko gehigarria onartzeko aukera egongo da. Aipatutako kreditu gehigarria erabiltzearen ondorioz ez da deialdia berriro argitaratu beharko.

3. Pertsona edo erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua

Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 4. artikuluan xedaturikoa izango da.

4. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak 2025eko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 9. artikuluan xedaturikoa izango da.

6. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak

Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 12. artikuluan xedaturikoak izango dira.

7. Proiektuak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitartean egingo dira.

8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak

Euskara eta Hezkuntza Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.

Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.

Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.

Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean:



- Kontu-hartzailea edo teknikaria.
- Saileko teknikaria.
- Saileko zinegotzia.
- Idazkaritza Saileko AOT bat.

Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak behin betiko ebazpena eman dezan.

9. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

10. Ebazpenaren jakinarazpena

Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.

11. Helegiteen araubidea

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko edo berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

HIRUGARRENA.- Erabakia argitaratzea Dirulaguntzen datu-base Nazionalean (BDNS), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian.



TOLOSAKO
UDALA

2025DO150003

Ebazpen hauek finkoak dira, eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordeztu, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

Garbiñe Marzol Ormazabal

UDAL-IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DO150003-Paisaia dekretua/Paisaia dekretua (TOLOSAKO UDALA)